

Sagardorako sagarrak baserritarren osagarri

Gipuzkoan sagardoa egiteko transformatzen den sagar kopuru osotik hemengoa (Gipuzkoan sagar gehiena ekoizten da) ez da %30ra iristen, gainontzeko sagardoa sagarra Asturias, Galizi eta Normandiatik ekartzen delarik batipat. Beraz, argi dago «gure» baserrietan sagarra ez dela inoliz izan ihardueranagusia eta azalazango dela hemendik aurrera izatea. Esandakoa azaltzeko arrazoi historikoetara jo beharko litzateke, industrializazio garaia, hain zuzen ere, ordutik hasi bait zen sagastiak kentzeko prozesua Euskal Herrian.


Dena den, ez da ahantzi behar lagungarri nagusi eta inportantea izan dela eta dela Gipuzkoako baserritarrentzat eta horrela izaten jarrai dezan bi parametro kontutan hartu behar dira, EHNE-Gipuzkoak dioenez.

Alde batetik, sagardoi bertako produktu naturalaren irudia ematen bazaio, bertako produktzioa «mimatu» beharko da,

sindikatuaren ustez, eta horrek, beste gauza batzuen artean, prezio egokiak mantentzea dakar. Ostantzean, epe motzera ez da iharduera lagungarria izatera ere iritsiko. Aurten, adibidez, kontrako gertatu da Gipuzkoan, hau da, kanpotik etorri den sagarraren prezioa baino baxuagoa egitea hemengoak. Hori horrela gertatzearen errudunetarikoa bat hainbestetan salatutako Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza sailaren jarrera izan da, EHNE-Gipuzkoaren iritziz.

Bestalde, Foru Aldundiak iharduera hori bultzatzeko jarri dituen bideak ez direla nahikoak uste du sindikatuak. Sagari landaketak egiteagatik diru laguntzak ematea ezer gutxi da, EHNE-ren ikuspegitik, gero ez bada arlo hau benetan lantzen. Bere ustez, iharduera hau benetan lantzeak esan nahi du, genetikoki barietateak aztertu, luraren azterketa fisiko-kimiko egin, hemengo eguraldiari dagozkion barietateekin lan egitea eta abar luze bat. Azken batean, kalitatearen bidea izan behar da benetan jorratu behar dena, sindikatuak esandakoaren arabera.

Sagar produktore eta sagardogileen arteko harremanak hobetzea da EHNE-k lortu nahi duen beste helburu bat. Zentzu honetan argi utzi nahi du Gipuzkoan eratu behar den Interprofesionalean produktoreak ordezkatzeko sindikatuak bakarrik



egon behar direla eta ez elkarte sektorialak. Orain dela urte batzuek Administrazioak Gipuzkoako mailako sagar-sagardoa Interprofesionalarri buruz aurkeztu zuen berridonean elkarte sektorialak bertan egoteko aukera ematen zuten eta

horrexegatik sindikatuak ez zuen proposamen hori onartu. Bere iritziz, gaiari heldu behar zaio berriro behar bezalako Interprofesional bat sortzeko. Interprofesional baten eraginez lortu daitekeenaren adibide argia da Asturiasko Inter-

profesionalak aurten sinatu duen hiru urtetarako prezioei buruzko akordioa. Honen arabera, oinarriko prezioak 27 (urriaren 12ra arte), 32 (geroztik azaroaren 12ra arte) eta 36 (azaroaren 12tik aurrera) pezetakoak dira.

URDAIRA
SAGARDOTEGIA

*Astelehenetan
ezik irekita*

Urdaira baserria
AGINAGA (Usurbil)
Telf.: 37 26 91

DISTINTIVOS DE CALIDAD DEL AUTENTICO IDIAZABAL

ARTZAI - GAZTA

 QUESO DE PASTOR

IDIAZABAL
 Con la garantía de la Denominación de Origen

